



GHI-208/22-P05-A

Udal izapideak egin ondoren, Asteasuko Udalak Julian Lizardi, Kojuene eta Karabelaberriko eraikinen kalifikazioa aldatzeko Plangintzako Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualaren espedientea aurkeztu du Foru Aldundi honetan, behin betiko onets dadin.

Espedientearen xedea da udalerriko komunitate-ekipamendu publikoaren zati bat berrantolatzea, haren kudeaketa errazteko. Horretarako, Juan Lizardi eta Kojuene ekipamendu-eraikinak bizitegi gisa birkalifikatzen dira, eta, aldi berean, aurreikusten da Karabelaberriko bizitegi eta industria lurzatian ekipamendu berri bat eraikitzea, aurreko horiek ordeztzeko.

Zehazki, Juan Lizardi eta Kojuene eraikinak birgaitu ondoren (egungo eraikigarritasunari eutsiko liokete), horietako bakoitzean 6 etxebizitza eraikitzea aurreikusten da. Karabelaberri eraikinari dagokionez, eraikinean dagoen etxebizitza bakarra kentzen da, eta ahalbidetzen da eraikigarritasuna handitzea, honela: gaur egun jasota dauden industria-erabilerako 326 m² (s) eta bizitegi-erabilerako 220 m² (s) izatetik, ekipamendu komunitariora bideratutako 887 m² (s) izatera pasatuta.

Asteasuko Udalak hasiera eman zion espedienteari, 2021eko uztailaren 27ko osoko bilkuran hartutako erabakian oinarrituta. Erabaki horri jarraikiz, plana formulatu zen eta herritarrek parte hartzeko plana onetsi zen; zegokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2021eko abuztuaren 5ean.

Ingurumen-organoari eskatu zitzaion planaren ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua egiteko. Izapide hori amaitu zen Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak 2021eko azaroaren 9ko ingurumen-txosten estrategikoa bidalita. Txosten horretan adierazi zen ezen, planak ingurumenerako eragin negatibo nabarmenik ez duenez, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egitea ez zela beharrezkoa, baldin eta ingurumen-txosten estrategikoan adierazitako alderdiak txertatzen baziren dokumentuan.

Asteasuko Udalean ingurumen-organoaren erantzuna jaso ondoren, Udalbatzaren 2022ko martxoaren 8ko erabakiaren bidez hasierako onespina eman zitzaion 2022ko otsaileko dokumentuari, eta jendaurreko informazio aldiaren ez zen alegaziorik aurkeztu.

Beste dokumentu bat idatzi zen, 2022ko urrikoa, zeinean erantzuna eman baitzitzaien Hegazkineria Zibileko Zuzendaritza Nagusiak 2022ko maiatzaren 27ko txostenean adierazitako gaiari, eta planari behin-behineko onespina eman zitzaion, Udalbatzaren 2022ko urriaren 25eko erabakiaren bidez.

Espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari bidali zitzaion eta, Gipuzkoako Hirigintza Plangintzako Atalaren 2022ko abenduaren 15eko 5/2022 bilkuran, aldeko txostena egin zen. URA-Uraren Euskal Agentziak eta Gobernuaren Arabako Ordezkariordeztako Sustapen Arloak egindako txostenak bidali zituen, eranskin gisa.

Azkenik, 2022ko abenduaren 22an, adierazitako espedientea Foru Aldundiaren erregistroan sartu zen.

Dokumentua Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren esku jarri zen, eta hark, 2022ko martxoaren 9ko txostenean, dokumentua ingurumen-txosten estrategikora egokitzeari buruzkoan, adierazi zuen ingurumen-txosten horretan ezarritako baldintzak txertatuta zeudela.



Foru Aldundiko Lurralde Plangintzako Zerbitzuak dokumentuaren edukia aztertu du, eta uste du egokia dela eta lortu nahi diren helburuekin bat datorrela. Ondorioz, behin betiko onetsi behar da eta argitaratu.

Horrela, bada, aplikatzekoa den legeria aintzat hartuta, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko foru diputatuak proposatuta eta eztabaidatu ondoren, Diputatuen Kontseiluak

ERABAKITZEN DU

Asteasuko Plangintzako Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala —Julian Lizardi, Kojuene eta Karabelaberriko eraikinen kalifikazioa aldatzekoa— behin betiko onestea, 2022ko urriko dokumentuaren arabera.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Nahi izanez gero, ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezake interesatuak Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzietako Salan, BI HILABETEKO epean, erabaki hau argitaratu edo, kasu bada, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.